

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT GORDETAKO PLAZAK

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren (EBEP) 59. artikulua honako hau dio desgaitasuna duten pertsonen eta enplegu publikoaz: .

I.- Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonen bete ditzaten, betiere, hautaketa-prozesuak gainditu, desgaitasuna egiaztatu eta desgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, administrazio publiko bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte. Desgaitasuna duten pertsonentzat joko dira zaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 4. artikulua 2 zenbakian jasotakoak.

Gutxieneko ehuneko zazpi hori erreserbatzeko orduan gutxienez eskainitako plazen ehuneko bi adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonen bete beharko dute eta eskainitako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek.

Administrazio eta zerbitzuetako lan kontratadunen 2016 eta 2017ko lan eskaintza publikoen **oinarri orokorretako bigarrean** (2018ko azaroaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) ezarri da eskainitako diren plazen totaletik ehuneko zazpi (7) gutxienez gordeko direla desgaitasuna duten pertsonentzat, eta halakotzat joko direla desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorren testu bateginan zehaztutakoak (4. artikuluko 2. atala).

Gutxieneko ehuneko zazpi (7) hori erreserbatzeko orduan, eskainitako plazen ehuneko bi (2) gutxienez gordeko dira desgaitasun intelektuala egiaztatzen duten pertsonentzat, eta gainerakoa, berriz, bestelako desgaitasuna egiaztatzen dutenentzat.

Aurreko atalean aipatutako ehunekoa gordeko da lan kontratadunen talde eta kategoria profesionalean, kasu bakoitzean **oinarri espezifikoek** zehazten duten banaketaren arabera. Hori 2018ko azaroaren 22ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

I. taldearen oinarri espezifikoetan honela geratu da erreserba:

- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 3. HE eta derrigortasun data gaindituta, IKTko goi mailako teknikarien kategorian, Sistemen Informatika espezialitatean.*

III. taldearen oinarri espezifikoetan honela geratu da erreserba:

- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun data gaindituta, IKTko teknikari espezialisten kategorian.*
- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun-datarik gabe, Elektrizitateko/Elektronikako teknikari espezialisten kategorian.*
- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe, teknikari espezialisten kategorian, Komunikazioa, Irudia eta Soinua espezialitatean.*

IV. taldearen oinarri espezifikoetan honela geratu da erreserba:

- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe, teknikari laguntzaileen kategorian, Osasuna/Animalietegia espezialitatean.*
- *Plaza bat (1) **desgaitasuna** duten pertsonen txandarako, 1. HE eta derrigortasun datarik gabe, Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileen kategorian, Mantentze Lanak eta Produktorako Zerbitzuak espezialitatean.*

2018ko martxoaren 22an, Negoziazio Mahaiak erabaki zuen **desgaitasun intelektuala** egiaztatzen duten pertsonekin betetzekoak diren plazak (eskainitako plaza guztien ehuneko bira, alegia) IV. taldean gordetakoak izatea.

Leioa, 2018ko abenduaren 5a